

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako udalerriko kontzejuen 2025eko gastu arruntak, obrak eta jarduerak finantzatzeko udal laguntzen 2026ko deialdia

Udalbatzak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Donemiliagako kontzejuek 2025ean egindako gastu arruntak, obrak eta jarduerak finantzatzeko 2026ko udal dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onetsi zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikulua, Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzen 4.4 artikulua eta Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikulua xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek, guztiek jakin ditzaten.

1. OINARRIA. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da udalerriko honetako kontzejuek 2025an zehar egin edo sustatutako gastu arruntak, obrak eta jarduerak finantzatzen laguntzea, oinarrizko zerbitzu publikoak eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko helburuaz egin badira.

2. OINARRIA. ERAKUNDE ONURADUNAK.

Donemiliagako udalerriko kontzejuek eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

3. OINARRIA. DIRULAGUNTZAK ESKURATZEKO BALDINTZAK.

Diruz laguntzekoak izango dira udalerriko honetako kontzejuek 2025an zehar egin edo sustatutako gastu arruntak (argiteria, klorazioa...), obrak eta jarduerak.

Deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak 2026ko ekitaldirako aurrekontu orokorreko 943 434.001 aplikazioko aurrekontu esleipenaren kontura ordainduko dira.

Deialdi honetarako gehieneko aurrekontua 177.485,74 euro izango da.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

– Beste laguntza edo deialdi batzuen bidez diruz laguntzen diren gastu arruntak, inbertsioak edo jarduera espezifikoak, diruz lagundu gabeko zatia izan ezik.

– Otorduen, elikagaien eta abarren gastuak.

4. OINARRIA. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA.

1. Dirulaguntzak emateko aintzat hartuko diren irizpideak honako hauek dira:

a) Zenbateko finkoa (12.629,28 euro), zeina 789,33 euroko banaketa linealari baitagokio; udalerriko hamabost kontzejuen artean banatuko da, kontuan izanik kontzejuek osatzen dituzten herriguneetako biztanleak hornitzeko diren ur andelak eta haien hoditeria.

b) Ur andelen banaketa linealetik geratzen den zenbatekoaren (162.856,46 euro) ehuneko 60 (97.713,88 euro), zati berdinetan banatuko da udalerriko hamabost kontzejuen artean. Horiek horrela, kontzeju bakoitzak 6.514.25 euro jasoko ditu.

c) Gainerako ehuneko 40a (65.142,71 euro), proportzioan banatuko da, kontzeju bakoitzak 2026ko urtarrilaren 1ean erroldaturik dituen biztanleen arabera.

Gastu arrunt, inbertsio eta jardueretarako, gehienez ere, zenbateko hauek emango zaizkie kontzejuei:

2025EKO AB-REN GASTU OROKORRAK (2026EKO DEIALDIA)					
HERRIA	BANAKETA LINEALA KLORAZIOA	BANAKETA LINEALA (% 60)	BIZTANLEKO BANAKETA (% 40)	2026/01/01	GUZTIRA
ADANA	789,33	6.514,25	5.536,21	60	12.839,79
AXPURU	789,33	6.514,25	2.768,10	30	10.071,68
BIKUÑA	789,33	6.514,25	2.952,64	32	10.256,22
DONE ERROMAN	789,33	6.514,25	8.396,58	91	15.700,16
EGILATZ	789,33	6.514,25	3.967,62	43	11.271,20
GALARRETA	789,33	6.514,25	2.860,37	31	10.163,95
LUZURIAGA	789,33	6.514,25	2.675,83	29	9.979,41
MEZKIA	789,33	6.514,25	1.845,40	20	9.148,98
MUNAIN	789,33	6.514,25	3.044,91	33	10.348,49
NARBAIZA	1578,66	6.514,25	9.780,63	106	17.873,54
OKARIZ	789,33	6.514,25	3.044,91	33	10.348,49
ERDOÑANA	789,33	6.514,25	4.336,70	47	11.640,28
TXINTXETRU	789,33	6.514,25	2.675,83	29	9.979,41
URIBARRI-JAUREGI	789,33	6.514,25	6.551,18	71	13.854,76
ZUHATZU DONEMILIAGA	789,33	6.514,25	4.705,78	51	12.009,36
GUZTIRA	12.629,28	97.713,75	65.142,71	706	175.485,74

d) Aurrekontu aplikazioan jasotako 2.000,00 euroko zenbatekoa auzo konpostajeko jardunbide egokietara bideratuko da.

Jarduera hori abian jarri duela eta horretan lanean diharduela egiaztatzen duen kontzeju bakoitzari gehienez ere 500,00 euroko dirulaguntza emango zaio, eta zenbateko hori kontzejuarentzat kalkulaturako dirulaguntza osoari gehituko zaio.

Baldin eta eskaera kopurua eta jasoko diren diru kopuruak direla-eta kontzeju bakoitzak jaso beharreko gehieneko zenbatekoa gutxitu behar bada aurrekontu partidan auzo konpostajeko jardunbide egokietarako ezarritako zenbatekora doitzeko, murrizketa proportzioan ezarriko zaie kontzeju eskatzaile guztiei.

2. Erakunderen batek egindako gastu arruntak, inbertsioak edo jarduerak ez badira heltzen esleitutako zenbatekora, soberakin hori 2026ko gehiegizko gasturako erabili ahal izango du, 2027ko deialdian hala eskatuta.

5. OINARRIA. ESKAERAK, DOKUMENTAZIOA ETA KOBRANTZA.

Onartutako dirulaguntza osoa jasotzeko, gastu arruntak, obrak eta jarduerak 2025ko ekitaldian eginak izan behar dira.

Eskatzaileek dokumentazio hau aurkeztu behar dute udal bulegoetan:

1. Udaletxean eskuratu daitekeen deialdi honetarako inprimaki eskaera, administrazio batzarreko lehendakariak sinatua.

2. 2025ko sarrera-gastuen kontua, Arabako Foru Aldundian aurkeztua.

3. Gastu eta inbertsioen zerrenda.

4. Beste erakunde edo organismo batzuetan izapidetutako dirulaguntza eskaerak jasotzen dituen zerrenda zehatza eta jasotako dirulaguntzen frogagiriak.

5. Inbertsioak finantzatzeko plana.

6-. Arabako Lautadako Kuadrillako Ingurumen teknikariak auzo konpostajeko jardunbide egokietarako dirulaguntzarako emandako txostena.

Egoki irizten bazaio, adierazitako dokumentazioaz gainera, dirulaguntza emateko beharrezkotzat jotzen den zernahi dokumentu, frogagiri edo faktura eskatu ahal izango da.

6. OINARRIA. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

Dirulaguntza deialdia egindakoan, dirulaguntza eskaera eta dokumentazioa udal bulegoetan aurkeztu ahal izango dira. Dirulaguntza eskaerak eta froga agiriak aurkezteko epea 2026ko irailaren 12an amaituko da herri guztientzat.

Ezarritako epea (2026ko irailaren 12a) igarota, kontzejuak galdu egingo du deialdi honen bidez emandako dirulaguntza.

Salbuespenez, behar bezala justifikatutako zergatiengatik (data ahaztea ez da onartuko justifikaziotzat), eta betiere udalaren esanbidezko ebazpena badago, epe hori hiru hilabetez luzatu ahal izango da gehienez ere.

7. OINARRIA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak jasotzen dituzten kontzejuak honako betebeharrak hauek bete beharko dituzte betiere:

– Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza ematen zaiola jakinarazten zaionetik hamar egun igaro baino lehen onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten ez badio dirulaguntzari, dirulaguntza onartzen duela esan nahiko du.

– Dirulaguntza jasotzeko bete beharreko betekizunak eta baldintzak betetzea.

– Udalaren egiaztapen eta finantza kontrola onartzea.

– Donemiliagako Udalak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta beste erakunde eskudun batzuek eskatzen dituzten argibide guztiak ematea.

– Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta dirulaguntzen udal ordenantzak ezarritakoak.

Dirulaguntzaren eskaera aurkezte hutsak berekin dakar oinarri hauek ezagutzea eta onartzea.

8. OINARRIA. ESKAERAK AZTERTU ETA EBAZTEA, ETA DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA.

Idazkaritza-kontuhartzaitza zerbitzua ematen duen teknikaria izango da instrukzio organoa. Teknikari horrek ofizioz egingo ditu datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezko jarduera guztiak, eta horiek baliatuz egingo du ebazpen proposamena.

Donemiliagako Udalbatzak du dagokion frogagiriak aurkeztu ondoren dirulaguntzak emateko eskumena. Horiek eginda, onartutako dirulaguntza osoa ordainduko da.

Eskaerak gehienez ere hiru hilabeteko epean ebartziko dira, frogagiriak aurkezten diren egunetik kontatzen hasita.

Epe hori amaitu eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du. Ebazpenak administrazio bidea agortuko du eta ebazpenean bertan adieraziko da zer errekurtso jar daitezkeen haren aurka. Ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da.

9. OINARRIA. ALDEZ AURRETIKO ORDAINKETAK ETA KONTURAKO ORDAINKETA.

Administrazio batzarrak egiaztatuko balu, dagozkion kontabilitate dokumentuak aurkeztuta, fakturaren bat ezin duela ordaindu, udalak beharrezko dirua sar lezake haren kontuan; administrazio batzarrak hamar egun izango lituzke, diru transferentzia egiten zaionetik aurrera, ordainagiria aurkezteko.

10. OINARRIA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA EDO LAGUNTZA BATZUEKIN.

Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu berarekin emandakoekin, baldin eta dirulaguntzetan jasotakoa gastua baino gehiago ez bada. Jasotakoa gastua baino gehiago bada, murriztu egingo da dirulaguntza, gastua eta laguntza parekatu arte.

Donemiliagako Udala ez den erakunderen baten dirulaguntza jaso dutenek adierazi beharko dute zein erakundek eman dien dirulaguntza eta zein izan den haren zenbatekoa.

11. OINARRIA. DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA.

Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura Donemiliagako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantzan eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan xedatutakoari lotuko zaio.

12. OINARRIA. DIRULAGUNTZA GALTZEA.

Oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak betetzen ez badira, dirulaguntza errebotatu ahal izango da.

13. OINARRIA. INTERPRETAZIOA.

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Donemiliagako Udalak ebatziko du.

Hauek dira aplikatu beharreko oinarrizko arauak: dirulaguntzen udal ordenantza, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak onesten baitu Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia.

14. OINARRIA. ARGITALPENA.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzak 4.4 artikuluan xedatutakoarekin, deialdi hau argitaratuko da DDBN-n, Donemiliagako udaletxeko iragarki taulan, ALHAOn eta udalaren web orrian, eta udalerriko kontzejuei jakinaraziko zaie.

15. OINARRIA. ERREKURTSOAK.

Deialdi honen eta deialdi honetatik sortutako egintzen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epean eta moduan.

Erdoñana, 2026ko ekainaren 10a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO